



AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK
EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA

9. ARDANZA PARKEKO ITURRIA ETXEKO LANAREN AITORTZA: KONPONDU GABEKO ARAZOA

Galdakoztarrek urteetan eta urteetan edan dute iturri honetako ura. Egunean zenbait aldiz, emakumeek litroka zamatzen zuten etxera zeramaten ura. Emakumeek garatzen zituzten zereginetakoa zen, eta, beste hainbat bezala, ez da inoiz baloratu. Emakumeek lan gogorak egiten zituzten, ordutegi-mugarik gabe: baratzean jardutea; ortuariak, esnea zein haragia merkaturatzea; baserrietako ekonomia eramatea; ganadua zaintzea... Horrez gain, familia zaintzen zuten, janaria prestatzen zuten, etxea garbitzen zuten edo jaiotzetan edo agurretan laguntzen zuten. Emakumeek betidanik lan egin dute, eta lan egiten jarraitzen dute.

Hala ere, kontraesan handia da gizarte guztien euskarria diren etxeko zainketak eta etxeko lanak lantzat ez hartzea. Emakumeek ekonomian eta garapenean izan duten ekarpena ikusezina da oraindik.

2022an, Erabidek Farmamundi Euskadiren laguntzaz egin zuen '*Dena neure gain*' dokumentala. Bertan, bost lekukotasunen bidez eztabaidatzen da zainketei buruz, baita isolamenduari eta zeregin horren ondorioz sortutako erantzukidetasunik ezari buruz ere. Eguneroko kontakizunen bitartez, ikus-entzunezkoak beharrezko hausnarketa kolektiboa sustatu nahi du, gizartean zainketen %70 emakumeen ardurapean daudela kontuan hartuta.

BAZENEKIEN...

Euskadin, Eustaten arabera, ordaindu gabeko etxeko lana BPGd-ren %27,7koa zela 2018an, hau da, 21.000 milioi eurotik gorakoa, eta, horren ondorioz, zainketen garrantzi ikusezinaren erakusgarri dela?



**AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN
IBILBIDEAK**
EMAKUMEEN OROIMENAREN IBILBIDEA

MI(cro) RELATO

Mañana se repite

Coser, planchar y cocinar

siempre lo mismo.

Trabajadoras ignoradas

detrás del delantal.

Sin reconocimiento ni recompensa.

Asfixiadas por la sociedad.

Consuelo Prieto Rodríguez

Esteka interesgarriak

<https://www.youtube.com/watch?v=FchUIBmcRAA>